

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, UDAL HARREMANEN ETA BERDINTASUN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko apirilaren 24an hartutako erabakiaren laburpena: 2025-2026 ikasturtean zenbait esparrutan euskararen erabilera sustatzeko proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia

BDNS(Identif.): 905653.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/con-vocatoria/905653>.

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, beren jarduera garatzen duten eremuan (kirola, hezkuntza, kultura, etab.) euskararen erabilera sustatzeko proiektuak edo jarduerak egin ditzaten.

Bigarrena. Helburua

Honako hauek dira deialdi honetan lagunduko direnak:

A multzoa: guraso-elkarteek edo guraso-elkarteen federazioek antolatutako aparteko ekintzak edo jarduerak, euskararen erabilerari buruz sentsibilizatzeko edo euskara erabiltzeko ohiturak sortzeko.

B multzoa: euskararen erabilera sustatzeko proiektuak, batez ere eremu ezformalean (aisia, denbora libre eta kirolak), eremu horietan euskararen erabilera areagotzea, hizkuntza-ohiturak aldatzea edo inplikaturako pertsonak sentsibilizatzea eta aktibatzea helburu dutenak.

C multzoa: Vitoria-Gasteizko tokiko komunikabideentzako laguntzak, lana osorik edo zati batean euskaraz egin dezaten, haien kalitatea eta irismena hobetzeko.

D multzoa: euskararen nazioarteko egunaren inguruko baterako programazioa, azaroaren 1etik abenduaren 17ra.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko apirilaren 24an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 199.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

20 egun baliodun laburpen hau ALHAOn argitaratzen denetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 24a

Alkatetzaren, Udal Harremanen eta Berdintasun Saileko zuzendaria
ARACELI DE LA HORRA GUTIERREZ